

**N**ork, noiz, nola kanta dezake pertsona argal batek lodifobiaz? Irakasle soldata jasotzen duen batek muturreko prekaritateaz? Zuri batek arrazismoaz? Guk besteez? Zilegia da gurekiko subalternoa den gorputz baten roletik kantatzea –berezi balizko gorputz horrek bizi dituen zapalkuntzen narrazioaren bidez gure bertsoei puntu forman kapitalizatuko dugun karga dramatikoak emanez–? Zein dira ahalbidetuko luketen baldintzak?

Nola egin bertsoa pentsatzeko eta sortzeko moldeak birpentsatu eta aberasteko, jadanik erabiltzen diren baliabide fikzionalak aintzat hartuz? Nola landu bertsoaren alderdi kreatiboa? Nola sortu arriskatzeko, probatzeko eta okertzeko eremuak? Nola lan egin gai-jartzaileekin batera fikzioari ate berriak edo lurzoru eginkorragoak emateko?

Ikusten al dugu gai-jartzailearen gorputza? Zein da bere egitekoa? Zer da gai-jartzailletza? Zer harreman du feminizazioarekin? Neutraltasun faltsuaren aurrean nola jarri gaiak? Zer egin taulan haragitzen den hierarkiarekin eta prestigio mailaketarekin?

Nola eta nondik sortzen ditu gaiak gai-jartzaileak? Nola prestatzen du gai-jartzaileak saio bat? Nola har daitezke kontuan aurretik aipatutako galdera horiek guztiak? Nola ekidin bakardadea eta aitortza falta?

Galderak horiek denak zenbaki monografiko honen abiapuntuan daude, baina baita amaieran ere, pentsatzen eta asmatzen jarraitzeko proposamen bat delako *Bertsoaren ahotsa: gorputza, diskurtsoa, generoa* monografiko hau. Tartean, hori dena pentsatu eta birpentsatzeko, kultur ikasketei eta pentsamendu feministari hartutako tresnak eta kontzeptuak proposatzen eta aplikatzen dira: araua, normatibitatea, hegemonia, subalternitatea, botere harreman eta hierarkiak, neutraltasun eza, feminizazioa, generoa, sinesgarritasuna, egiantzekotasuna, markoa, muga, arrakala, eraldaketa, iraulketa.

Miren Artetxe, Irati Majuelo, Oihana Arana eta Ainhoa Urien dira egileak, denak bertso ekosistema barneko kideak, lehen hirurak bertsolariak –besteak beste– eta laugarrena gai-jartzailea –besteak beste, hori ere–. Ez dira halere monografiko honetan ahotsa duten

bakarrak, Maite Berriozabal gai-jartzailea eta Sustrai Colina eta Ne-rea Ibarzabal bertsolariak ere presente daude, oso presente.

Bertsolaritza gizartearen isla dela aspalditik esan da eta egia da –kultur diziplina guztiak bezala–, eta, horregatik, bertsolaritzaren gaineko disezio kritiko hau euskal kulturgintzaren eta euskal gizartearen gaineko disezio bat ere bada, eguneroko bizitza arautzen duten aldamioren ezaugarritzeaz ari baitira lau ikerlariak. Egia esatera, delizia bat da pentsamendu kokatu ariketa hau. Dom Campistronek ere bere ahotsez ekarri du kontrazalera ahots eta gorputz aniztasuna.

*Egunen gurpilean* sailean, ohiko hiru artikulugileak ditugu: Shu Otero mamu eta fantasmen izaera eta agerpen askotarikoez ari da memoria erresistentzia-leku gisa aldarrikatzeko. Cira Crespok, berriz, historia herrien tradizio memorialistikoaren argitan –gurean, besteak beste, ahozkotasuna eta bertsolaritza– ikertzeko beharra azaltzen du. Eta Joanes Igeregik iraultza berdea eta elikadura krisia hartzen ditu ahotan, besteak beste, perrandoren egia bat esateko: lurra dela elikaduraren funtsa.